

2024KO KLIMA EGONALDIA

EGITARAU OSOA

IRAILAREN 12A OSTEGUNA

Auzolan: Klima Egonaldiaren plantan ematea - 09:30etik goiti.

Publikoaren errezibitza eta lagunarteko jarduerak – 17:00etatik goiti

Musean hasteko ikastaldia - 18:30-19:30

Krisi ekologiko eta demokratikoen garaian energiaren zirkuitu laburra eraikitzea – 20:30-22:30.

I-Ener eta Energia

Erregai fosilen omnipresentzia garaian, ezinbestekoa da energia berriztagarrietan oinarrituriko eredia garatzea. Nola berreskura dezakegu gure energiaren kontrola merkatuaren legearen eta horniduraren (uranioa, petrolio, gasa...) menpekotasunaren aitzinean? Ipar Euskal Herrian energia zirkuitu labur baten erronka arrakastatsua izateko zein desafiok itxoiten gaituzte ondoko urteetan? Zer proposatzen du RNK energiari dagokionez, eta zer arrisku dakar I-Ener eta Energia bezalako egituren iraunkortasunerako?

IRAILAREN 13A OSTIRALA

Indarkeriarik gabeko ekintza-teknikei buruzko lehen irakaspenak - 9:30-13:00.

Oihana Driollet eta Teddy Atlani, Biziren Ekintza taldea!

Indarkeriarik gabeko ekintzetan edo desobedientzia zibilean parte hartu nahi duten pertsona guzientzat ezinbesteko oinarriak ezagutzeko parada: indarkeriarik gabeko jarrera ekintzan, ekintza erregistroak, arrisku legalak, atxiloketa gertatuz gero hartu behar den jokabidea... 15 urtetan zehar Bizik finduriko hainbat praktika eta buruturiko hainbat ekintza.

Pertsona migratzaileak: elkartasuna sekulan baino gehiago! - 9:30-11:00

Léna Le Forestier eta Elise Ayrault, Biziko Etorquinekin elkartasuna lan taldea

Gerlatik, indarkeriatik, gosete-lehorte-kutsaduraz, etab. ezinbiziak bilakatu diren lurraldeetarik, errepressioetarik ihesi joatea... Jende askok dena uzten du errefuxiatzeko eta bizirik irauteko beste nonbait. Azken urteotan aitzinatu diren eskuin muturraren ideia arrazista eta xenofoboei buru egiteko, mugako egoera eta horren ondoriozko tragediak jorratuko ditugu, maila ezberdinetako ekintza solidarioen palankak, Euskal Herrian juntatzeko mobilizazioak. .

Zergatik eta nola jokatu Euskal Herrian kanpoko publizitatea geldiarazteko? - 11:30-13:00.

Elise Ayrault eta Anthony Lubrano, Euskal Herri Aturi Publizitatea Geldi kolektiboko kideak

Nolaz publizitatea, sozial, osasun eta klima arloan arazoa da? Euskal Elkargoak aurrean publizitatea debekatuko edo baimenduko dituen arauak eta eremuak erabakiko dituelarik, herritarrek aukera paregabea dute lurraldea publizitatearen ugarizetik babesteko jarduteko. Formakuntza honek ekintza-palankak proposatuko ditu Ipar Euskal Herrian publizitatearen hedapena geldiarazteko eta gibelarazteko.

**Nola eraman zure borroka garaipenera?
Mouguerrek Barthes-en adibidea -
14:30-16:30.**

François Verdet, Biziko kidea eta Zentzugabeko eta naturaren kontrako proiektuen huts egin arazteko gidaren egilea.

Estrategia, taktika eta ekintza eraginkorrak planifikatzeko eta plantan ezartzeko gure metodoak; ebaluatu zure aliatuak eta aurkariak eta kudeatu zure kanpaina denboran zehar.

Eskuin muturra atzera botatzeko burujabetza konkretuak eraiki - 17:00-18:30.

Elise Dilet eta Nicolas Goñi (Biziko Burujabetza taldea), Amaia Muñoa (ELA sindikatuko idazkari nagusiordea)

Bere bidean den guzia suntsitzen ari den globalizazio kapitalistaren aitzinean, gure lurraldeetan berriz oina jarri nahi dugu, gure mendeko erronka global handiei erantzuteko gai iruditzen zaigun ikuspegi bakarra. Zein da biharko Euskal Herriaz dugun ikuspegia? Zer zentzu eman behar diogu lurraldearendako subiranotasun kontzeptuari? Nola burujabetza konkretuen eraikuntza kolektiboak eskuin muturrak monopolizatu ezin dituen identitate kolektiboak ere eraikitzen ditu?

Mutxikoetan hasteko ikastaldia - 18:30-19:30

Artifizializazioa: tokiko borroka, larrialdi globala! 20:30-22:30.

Martine Bouchet (CADE - Ingurumenaren Defentsa Elkartearen Kolektiboko kidea), Eider Gotxi (Urdaibaiko Guggenheimen aurkako kolektiboko kidea)

Hamarkadetan, lurren artifizializazioa aterabide errexa izan da etxebizitzak eraikitzeke edo jarduera ekonomikoak garatzeko. Nola ateratzen ahal gira gure bizi-inguruneak, gure elikadura-burujabetza, gure paisaiak suntsitzen dituen logika hortarik? Ekologia zinez enpleguen kontra dea ala enplegua eta klima errimarazten ahal ditugu? Hasi gaitzen tokiko borroketatik gure lurraldeak antolatzeke beste molde batzu irudikatzeke.

IRAILAREN 14A LARUNBATA

Ekitaldi bat Atik Zra antolatu - 9:30etatik 11:00etara.

Oihana Driollet eta Lilas Dinclaux, Bizi!

Beti amestu duzu jakitea Bizik bere mobilizazioak eta kanpainak nola gauzatzen dituen? Ekitaldi, kanpaina eta mobilizazioen antolakuntzan eta logistikan abangoardian izateko gako guziak ezagutzeko formakuntza.

Alda: ekologia herrikoia eraiki - 9:30-11:00.

Lara Saget (Aldako Eguneroko Borroken lantaldea), Nicolas Igier (Alda Lespès), Sandrine San José, (Alda Habas), Thibaut Godin (Aldako Autoantolakuntza kolektiboa lantaldea)

Nola abiatu pertsonen berehalako behar eta behar materialetatik, bereziki etxebizitzatik, lurraldeko proiektu sozial eta ekologikoaren eraikuntzan gehiengoak parte har dezan? Etxebizitza eskubidearen defentsa indibiduala eta kolektiboa, auzoetan autoantolakuntza kolektiboaren dinamikak, garaipenak: Aldaren esperientzia, hots 2020ko urrian sortu den Ipar Euskal Herriko auzo eta jendarte herrikoietako biztanleen eskubideen defentsarako mugimenduaren esperientzia partekatzea.

Etxebizitza: sartzeko erronkak - 11:30-13:00.

Léa Dallemane (Aldako Eguneroko Borroken lantaldea), Cécile Velasco eta Marc LACLAU (Audap), Carole Ternois (Herrian Bizi plataforma)

Euskal Kostaldeko tentsio-eremuan alokairu-kontrol indartuaren aplikazioaren hasiera, iruzurrezko alokairuen kontrako borroka, lur eta eraikinen salmenta-prezioen kontrola, eta ondotik Airbnb-ren kontrako konpentsazio araudiaren aplikatzea, etxebizitzaren saltzeko xedea dela eta alokatzearen gelditzea jakinaraztearen kontrola, bigarren etxebizitzaren ugaltzearen kontrako borroka, etxebizitza elbarritasunari eta zahartzeari egokitzea HLM parkean: etxebizitzaren alde hainbat garaipen estruktural lortu ondoren, zein dira ondoko urrats eta epeak herrian bizitzeko eta aloitzeko eskubidearen alde?

Finantza klimaren zerbitzura ezartzea Euskal Herrian hasten da! 12:00-13:30.

Lucie Pinson, Reclaim Finance-ko zuzendaria.

Finantza sektoreak zeregin handia du gure jendartearen eraldaketa ekologikoan. Nola jardun dezakegu Euskal Herrian bankuen inbertsioen norabideak aldatzeko? Zein mobilizazio imajina ditzakezu? Reclaim Finance GKEa berezitua da arlo honetan, enpresen praktiken azterketatik hasiz... kontuak eskatzeko kanpainetaraino.

RNA boterera bidean, zer ondorio gure estrategietan? - 14:30-16:30.

Rémi Barroux (kazetaria), Lucie Delaporte (Médiapart-eko kazetaria), Peio Dufau (député de la 6e circonscription des Pyrénées-Atlantiques), Malika Peyraut (Alda)

Azken bi hamarkadetako Rassemblement National-aren aitzinatzeak, udaberrian iragan Europako eta frantses Legebiltzarreko hauteskundeen emaitzarekin zehatu denak, gure proiektu ekologista eta soziala mehatxatzen du eta gure strategiak zalantzan ezartzen ditu. Zerk esplikatzen du arrakasta hori? Zer erakusten du, inplizituki, indar aitzinazaleek burutu estrategien mugetaz? Zer ekintza egin behar dira ondoko urteetan eremuen berreskuratzeko?

Bizi: 15 urtez ekintza inspiratzaileak etorkizunari buruz pentsatzeko - 17:00-19:00.

Lucie Pinson (Reclaim Finance GKEko zuzendaria), Rémi Barroux (kazetaria), Barth Camedescasse (Biziko Koordinatzaile ohia), Elise Dilet (Biziko koordinaketa kidea)

Zer eragin izan du Bizik euskal jendarte zibilean eta frantses Estatuko mugimendu klimatikoan? zenbateraino lagundu du klima-aldaketaren inguruko sentsibilizazioan eta jendarte jasangarriago, justuago eta birtokiratuago baterantz doan bidean? Zein inspirazio aurki dezakegu bertan gaur plantan eman behar diren borroka eta strategiari buruz pentsatzeko?

Biziren 15. urtemugako gaualdia - Kontzertuak - 20:30

Foisis (Itoiz-i omenaldia)

Elektruka (elektro-folk zuzenean)

Fraggle (DJ set)

IRAILAREN 15A IGANDEA

Nola antolatu lurraldea bizi-kalitatea zaintzeko eta klima-aldaketaren kontra borrokatzeko? - 10:00etatik 11:30era.

Carole Temois (Bizi! Habitata etxebizitza taldeko kidea), Lauriane Lascrain eta Mathilde Belascain (Luhusoko Herriko Etxeak martxan ezari Amalurra gune partekatu/parte hartzailea proiektuaren arduradunak).

Eraikinen kokapenari, formari, materialei edo baita energiari eta ekipamenduei buruzko hautuek, eragin handia dute ingurumenean, baina baita bizilagunen osasunean eta ongizatean ere. Ondorioz nola diseina ditzakegu biharko munduari egokituriko proiektu kualitatibo eta soilak? Horri erantzuteko, Urritasun Zoriontsu eta Sortzailearen Audeko Mugimenduak eta Bizik indarrak batzen dituzte "Hego Akitaniako eraikin urriaren karta" garatzeko. Etor deskubritzera!

Bizi! bi militanteren ibilbidearen bidez kontatua - 10:00etatik 11:00etara.

Barth Camedescasse eta Magali Lartigue, Biziko kideak.

Bizin duela bulta bat engaiatuak diren bi militantek beren militante-ibilbidea partekatzen dute. Bizi zergatik formakuntza eskola den, antolakuntza kolektiboaren, tokiko errotzearen, eraginkortasunaren eta lagunarte giroaren arteko orekaren garrantzia zehazki erakusten dituzten historiak.

Pentsa erradikal, ekin pragmatiko - 11:30-13:00.

Txomin Poveda, soziologoa eta militantea

Nola gauzatzen ahal da "alda sistema, ez klima" helburu duen proiektu erradikala molde konkretu eta eraginkor batean? Software erradikal-pragmatikoaren eta praktika militantean aldatzen duenaren analisisa.

Aniztasuna eta hizkuntza gutituak biziarazi, euskarazko hitz batzu - 12:00-13:00.

Antton Hariñordoki, Biziko Euskaraz Bizi!n lan taldea

Euskal kulturaren oinarriko elementua, euskararen praktika Bizin errotua da hasieratik. Ebidentzia kulturaletatik haratago, burujabetza konkretu eta mugaz gaindikoak eraikitzeko nahikeriatik haratago, arrazoi askok bultzatzen dute Bizi euskaraz ere bizitzera. Zatoz gurekin lehen urratsa ematera hizkuntza honen deskubritzeko!

Palan hasteko ikastaldia 13:00-13:30.

Euskal Herrian bestela bizi: alternatiben ekosistema - 14:30-17:00.

Konpon Txoko, Enargia, Euskal moneta, Lurzaindia; Julien Milanesi, ekonomia irakaslea (Toulouse Paul Sabatier Unibertsitatea / CERTOP)

Energia, birtokiratzea, ekonomia zirkularra, laborantza: zein dira Euskal Herri jasangarriagoa izateko alternatibak? nola funtzionatzen dute? Eta nola lagundu horiek? Zatozte haiekin topatzera!

Ipar Euskal Herriko alternatiben ekosistemaren azterketaren jarraipena: zein dira haien loturak? nola atxikitzen dute jendartearen eraldaketa sakon baterako norabidea... ahal bezain bat jenderentzat eskuragarri izatea segituz?

Ene herriaren metamorfosi ekologikoaren alde ekin - 14:30-16:00.

Francisco Ordas eta Anthony Lubrano, Hitzaz Hitz/Alternatives territoriales de Bizi taldekoak!

Larrialdi ekologikoaren buru egiteko lurralde iraunkor, solidario eta erresiliente batean bizitzeko eta aloitzeko, ekintza-palanka ainitz tokiko eskalan dira. Nola ekin dezakegu herritar gisa, hautetsien agintaldiaren bukaerarako eta ondokoari so gure herriko etxea eta euskal elkargoa metamorfosi ekologiko desiragarri bideratzeko?

Kolektiboki antolatzen ikasten da! - 16:30-18:00.

Thibaut Godin eta Gaëlle Vincens, Aldako kideak

Gure indarra ekintza kolektiboa da. Baina talde lana, ez da errex! Nola antolatzen ditugu bilkurak eta nola hartzen ditugu erabakiak? Nola bermatu taldearen funtzionamendu egokia? Zein metodo eraginkortasuna, demokrazia eta lagun arte giroa uztartzeko?

Auzolan: Klima Egonaldiaren altxatzea - 17:00etatik goiti.

Informazioak

<https://bizimugi.eu/eu/2024ko-klima-egonaldia>